

KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA: A eta B GUTUN-AZALEN IREKIERA

Espedientea:	Espediente zk.a.: 2024KOZB0009 Kontratazioaren xedea: Askagain edo Iturriberri parkeko kantina edo zerbitzuen eraikina ustiatzea
Eguna:	16/05/2024
Ordua:	11:30
Bertaratuak:	<p><u>Presidentea:</u> Ainhoa Lete Zabaleta, Bergarako Udaleko Alkatearen orde.</p> <p><u>Bokalak:</u> Kontxi Ugalde Izeta, Bergarako Udaleko Idazkaria Ainhoa Larrañaga Berriozabal, Bergarako Udaleko Kontu-hartzailearen orde</p> <p><u>Idazkaria:</u> Aritz Oteiza Lasagabaster, Bergarako udaleko Kontratazio Teknikaria</p>
A gutun-azaleko edukia onartzea	“A” gutun-azala ireki du kontratazio teknikariak bulegoan eta DEUC delako dokumentuan zenbait zinpeko aitorten bete gabe daudela ohartarazi du. Akats zuzengarri bat dela kontuan izanda, eta aintzat hartuta lizitatzaille bakarra dagoela, Kontratazio Mahaiak aho batez erabaki du hiru egun balioduneko epea ematea Juan Cruz Agiñagalde Galarraga jaunari jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita aipatu akatsa zuzentzeko, adierazita zuzendu ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta, B gutun-azala irekitzea.
B gutun-azala irekitzea	Gauzak horrela, jarraian “B” kartazala ireki da, eta aipatu lizitatzailleak eskaintza tekniko eta egutegi bat aurkeztu duela ikusi da. Eskaintza hirigintza zerbitzuari helaraztea erabaki dute bertaratutako mahaikideek aho batez.

Hamabiak laurden gutxi direnean, lehendakariak amaitutzat eman du irekitze-ekitaldia, eta nik, idazkari lanetan egon naizen honek, hori ziurtatzen dut.

Sinatuta: **PRESIDENTEA** Sinatuta: **IDAZKARIA**

Esp.: 2024KOZB0009

